# *Ikasteko ingurune digitala: joerak, garapenak eta lehentasunak*

Bilbo, 2019ko otsailaren 21

AURTEN BAI FUNDAZIOA

AURTEN BAI

AURTEN BAI

AURKIBIDEA


Ezertan hasi orduko zenbait kontsiderazio 3

Panorama berriari egokitu beharra 3

Lanari heltzeko *world cafe*a 4

1. Zergatik *world cafe*a eta ez beste egitura bat 4
2. Otsailaren 21eko *world cafe*a 5
3. Mikro hitzaldiak 6
4. *World cafe*aren dinamikatik abitatuta 9
5. *World cafe*an ateratako ondorioak 11
6. Aurten Bai Presidentearen agur hitzak 12
7. Ateratako ondorioetatik bozkatuenak 12
8. Aurrera begirako urratsak 14

AURTEN BAI

**EZERTAN HASI ORDUKO ZENBAIT KONTSIDERAZIO:**

Onlineko munduak gero eta indar, jarraitzaile eta leku handiagoa du egungo gizartean:

- 3.700.000.000 pertsonek dute Internetera sarbidea munduan
- EAEn %96k Interneterako sarbidea duen telefonoa du.

Hona hemen EAEko kopuru horiek zehatzago:

- 15-24 urte bitartekoen artean % 99k
- 25-34 urte bitartekoen artean % 96k
- 35-44 urte bitartekoen artean % 97k
- 45-54 urte bitartekoen artean % 92k

Kontua da, baina, Interneterako sarrerek ez ezik, erabilerak ere gora egin duela, eta horrek **eragin zuzena du gizarteratzeko zein gizartean bizitzeko moduan**.

- Herritarren %51 sare sozialetako partaideak gara
- Minutuko YouTuben 700.000 bideo-minutu ikusten dira
- Berriak teleberrietatik jaso beharrean, Facebooken bilatzen dira
- Segundoko 6.000 txio argitaratzen dira Twitteren

**PANORAMA BERRIARI EGOKITU BEHARRA:**

Aurten Bai Fundazioak uste du hurrengo urteetan euskararen irakaskuntzan oraindik ere aurrez aurrekoa izango dela ardatza, baina ikasleak gero eta autonomoagoak izango direla. Horrela, eskoletara joan ez joan, bakoitzak bere tresnen eta erreminten mapa (PLE/NIE-a) izango du. Eskoletarako joanez gero, eskolez gain, nahi duena eta nahi duen martxan ikasi ahal izateko. Eta joan ezean, gauza bera egiteko; hau da, nahi duena nahi duenean ikasi ahal izateko. Eta horretarako tresnak beharko ditu, baita onlineko tresnak ere.

Onlineko aukeren artean, asko dira egun eskura dituztenak eta horretan aipamen berezia merezi dute komunikabideek. Baina ez dira baliabide bakarrak, badira beste aukera batzuk ere: YouTubeko kanalak, mikroikastaroak, appak, IKASBIL, ... Hala ere, beste edozein hizkuntzatan klik batera dagoen unibertsoarekin alderatuz gero, gurean informazio jasotzeko iturriak asko badira ere, oraindik ere gutxi dira didaktikatutako onlineko materialak. Baina hori elikatuz eta sendotuz gero, ikasleek aukera gehiago izango lituzke nahierara ikasten jarraitzeko.

Bide hori jorratuz gero, gainera, ikasleen PLE/NIE hori osatzeko aukerak zabaltzeaz gain, beste helburu hauek ere izango lituzkete tresna horiek:

- Aurrez aurrekoari lagundu, ikasleak ondoen egokitzen zaizkion tresnak eskura izanda: eduki zehatza lantzeko ikastaroak, hiztegia lantzeko aplikazioak, …
- Ikas-prozesua uzten duten ikasleen kopurua gutxitu.
- Ikasle berriak ikas-prozesura hurbilaraztea, lehenengo harreman arrakastatsua edota baikorra eskainiz: euskararen irakaskuntza zer den ikusteko aukera arrakastatsua.
- Ikas-prozesua arintzea.
- Eskoletara joan ezin den ikasleari aukera bat ematea, behar duena lantzeko.

## LANARI HELTZEKO: *world cafe*a

Panorama berriari egokitzeko, denok dakigun bezala eta aurretik aipatu bezala, ikasleak baditu tresna batzuk aukeran, baina ez beste hizkuntzetan dauden beste, eta horrek zer pentsatua ematen du, zer gertatzen da euskarazko garapenekin? Zergatik goaz hain astiro?

- Produktuak arinegi zaharkitzen dira?
- Erabiltzaile potentzial gutxi ote gara?
- Inbertsio edota ahalegin handiegia eskatzen dute?

Hala ere, baldintza horiek kontuan izanda ere, Fundazioak uste du badugula, berandu baino lehen, bide berriak jorratzen hasteko garaia, inguru digitalak eskaintzen dituen aukerak euskararen irakaskuntzak gal ez ditzan. Eta euskararen normalizazioa helburu duen irabazteko asmorik gabeko Fundazioa izanik, ez du erronka berri honetan euskara atzean gelditzea nahi. Hala ere, ezertan hasi orduko beharrezkoa da egoera zein den argi izatea eta non gauden jakitea, aurrera begirako urratsak zein beharko liratekeen argi izateko.

Eta horregatik eta helburu horri begirako lehenengo urratsa emateko eta egoera zertan den aztertzeko antolatu zen 2019 otsailaren 21eko *world cafe*a. Ingurune digitalak eskaintzen dituen aukeren artean elikatzeko bideak aztertzeko eta, ahal izanez gero, lehentasunak markatzeko; bestela esanda, non gauden adostuta, norabidea markatzeko.

### 1. Zergatik *WORLD CAFEa* eta ez beste egitura bat.

World cafea elkarrizketa sortzeko modua da. Eta elkarrizketa hori, gainera, errespetu giro batean burutzen denez, bide sortzailea izaten da, normalean. Horrela, partaide guztiek duten jakinduria konpartitzen dute eta gai bat aztergai hartuta, aukerak bilatzen laguntzen dute.

Elkarrizketak talde txiki eta pribatuetan egiten dira, mahai baten inguruan eta giro lasaian (aldi berean, hainbaten berbaroak sor dezakeen egonezina gaindituta), Europako Kafe batean egon daitekeen antzeko giroan, hain zuzen ere. Eta elkarrizketetan zehar, parte hartzaileek talde batetik bestera egiten dute, aurrez finkatutako eskemari jarraiki, ahalik eta pertsona desberdin gehienekin egoteko. Batetik bestera horretan, berekin eramaten dituzte beren iritziak, bizitzan eta lanean garrantzitsutzat dituzten iritziak eta pentsamoldeak. Modu horretan, harreman berrien sarea hazteaz batera, ezagutza partekatzeko aukera horretan, errealitatearen ikuspegi osotuagoa lortzeko aukera izaten da.

Beraz. alde horretatik, *world cafe*aren diseinua berritzailea da, komunitate batean guztion iritziak entzutea bultzatzen duena, ikuspegi desberdinak irekitzea bideratzen duena, elkarren errespetua sortzen duena eta eragiteko aukera berriak aurkitzen laguntzen duena. Eta horixe da, hain zuzen ere, eredu hau aukeratu izanaren arrazoia, gure helbururako biderik egokiena zela uste baikenuen.

## 2. Otsailaren 21eko *world cafe*a.

Bertan, erakunde desberdinetako profesionalak elkartu ginen; adibdez, erakunde hauetako ordezkariak egon ginen bertan: EHU, BERRITZEGUNEAk, LH, IRALE, IVAP, HABE, OSAKIDETZA, JUSTIZIA, AZKUE Fundazioa, GARABIDE, ELHUYAR, EUSKALIT, UDAL EUSKALTEGIAK, HERRI EKIMENEKO EUSKALTEGIAK, ITZULTZAILE elkartea. Azken orduko baja batzuk ere izan genituen, horretan agian aipagarriena ELKAR argitaletxearen azken orduko hutsegitea.

Partaidetzari begira, ahalik eta partaidetza zabalena nahi genuen, batetik, euskara lan-tresna eta helburu dugun erakundeak; bestetik, hezkuntza erakunde desberdinak. Hala ere, argi izan behar dugu horrelako ekimen bat lanegun batean antolatzeak badituela bere mugak, askok lan egin behar baitute eta ez dute hain erraz baimena lortzea.

Askotan gertatzen den bezala, antolatzen duenak badaki zer lortu nahi duen, eta zailtasuna horren transmisioan izaten da. Entzuten duenak bere izatea jartzen duelako entzuten duen horretan, eta entzundako horren arabera, ulertzen du; izan ere, entzuteak hitzei bizitza emateko esanahia ematea da. Eginkizun horretan, nor bere esperientzietatik abiatzen da. Zailtasuna hori da, eta batzuetan ez gara kapaz nahi duguna helarazteko, ez nahi bezala behintzat. Horregatik saiatu ginen ahalik eta argienak izaten. Euskararen PLE/NIE-a ez da nahi bezain aberatsa; beraz, nola elikatu beharko genuke? Nolako tresnak? Hau da, bide horretan lehentasunak markatzen hastea zen helburua.

Egoera ezagutzeko eta helburuari begirako erabaki eraginkorragoak hartzeko, ingurune digitalak nolako aukerak eta oztopoak dituen hobeto ezagutzeko eta bezeroek zer nahiago duten argi izateko mikro-hitzaldiak egon ziren, hiru guztira. Parte hartzaileen ezagutza eta konfiantza areagotzeko eta ikuspegia osatuagoa izateko.

## 3. MIKRO HITZALDIAK

Aipatu bezala*, world cafe*an berezitasun txiki bat izan genuen, ezer baino lehen, hiru hizlarik hartu zuten parte, bakoitzak 20 minututan alderdi bati heltzeko eta parte-hartzaileok kokatzen laguntzeko. Horrela, hizlariak eta bakoitzak jorratutako alderdia hauek izan ziren:

- **HIZKUNTZEN DIDAKTIKAREN EGUNGO EGOERA, hizkuntzen irakaskuntzan dauden joerak:**

INGURUNE DIGITAL ETA TEKNOLOGIAREN AUKERAK EUSKARAREN IRAKASKUNTZAN hitzaldia -Maite Goñik

---

Jakina da euskarak aurrerapauso nabarmena eman duela azken urteotan alor ezberdinetan. Era berean, ezin uka daiteke ingurune digitalak zein teknologiak esparru askotariko aukerak zabaltzen dituztela eremu ezberdinetan. Euskararen irakaskuntza, baina, gai izan da azken hauek eskaintzen dituzten aukera anitzei etekina ateratzeko? Bide berriak urratzea nahitaezkoa da? Eta hala bada, zeintzuk izan daitezke berrikuntzarako gakoak?

Galdera horiei eta beste hainbati erantzuteko asmotan izan genuen Maite Goni, teknologiak irakaskuntzan eta, bereziki, hizkuntzen irakaskuntzan ematen dituen aukeretan, teknologia integratzeko eredu ezberdinetan eta dauden metodologia berri eta joera teknologikoetan begirada pausatzeko.

MAITE GOÑI

Maite Goñi Mondragon Unibertsitateko irakasle da. Besteak beste, bertako fakultate ezberdinetako irakasleen formazioan dihardu tekno-pedagogia esparruan (konpetentzia digitala, online ikastaroen diseinua eta IKTak hezkuntzan alorretan bereziki). Ingurune digitala, internet, teknologia eta euskara hizpide hartuta, hainbat mediotan kolaboratzen du, hala nola, EITBko *Ahoz Aho* eta *Amarauna* saioetan eta Ttap aldizkari multimedian. Eusko Jaurlaritzaren Euskararen Aholku Batzordeko kide da eta Ingurune Digitalaren Batzorde-Atalaren zuzendari.

- **EUSKARAZ GARA DAITEKEENA, teknologiak euskarari jartzen dizkion mugak eta ematen dizkion aukerak:**

EUSKARAK TEKNIKARI JARTZEN DIZKION MUGAK hitzaldia, Montse Maritxalarrek eta Mikel Iruskietak.

Hitzaldi honetan euskararen ingurune digitala elikatzeko, gaur egun arrakasta duten aplikazio eta garapen batzuk euskarara egoki daitezkeen argitu, erraz eta aukera asko eman ditzaketen tresna batzuk aurkeztu eta horien adibide batzuk ikusi genituen, zelan baliatu daitezkeen hobeto ulertzeko.

Aurrekoaz gain, Hizkuntzaren Prozesamenduko teknikek eta tresnek zer ahalbideratzen duten, nolako aukerak ematen dituzten eta oztopoak non dauden identifikatzen saiatu ziren. Bukatzeko, Ixa Taldean sorturiko tresna zenbait garatzea zergatik den garrantzitsua eta, horren harira, CLARIN-ERIC bezalako hizkuntza azpiegiturekin lankidetzan aritzearen abantailak ere azaltzen saiatu ziren.

MONTSE MARITXALAR

Montse Maritxalar, doktorea Informatikan eta IXA ikerketa-taldearen kidea dena, Euskal Herriko Unibertsitatearen irakaslea da Informatikan Ingenieritza graduan eta "Hizkuntzaren Analisia eta Prozesamendua" izeneko masterrean. Horretaz gain, "IKT eta Konpetentzia Digitalak Hezkuntzan" izeneko berezko tituluaren batzorde akademikoko kidea da. Bere lana hizkuntzaren prozesamendua, ikaskuntza eta materialen sorkuntzara bideratuta dago.

Egun, Eusko Jaurlaritzan Euskara Aholku Batzordean Ingurune Digitalean Euskara Sustatzeko Batzorde-atal bereziaren kidea da , eta "European Network for Combining Language Learning with Crowdsourcing Techniques" cost action ikerketa sarearen ordezkarietako bat Espainiar Estatuan.

MIKEL IRUSKIETA

Mikel Iruskieta Euskal Filologian eta Filosofian lizentziatua eta doktorea Euskal Filologian. Bilboko Hezkuntza Fakultatean irakaslea da Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika sailean. Horrez gain, IKTak eta Konpetentzia Digitalak Hezkuntzan (HEZikt.eus) Berezko Tituluko (UPV/EHU) zuzendaria da eta Hizkuntzaren Analisia eta Prozesamenduko (UPV/EHU) Masterreko irakaslea. Halaber, IXA Taldeko ikertzailea eta CLARIN-ERIC baliabide digital linguistikoak jendarteratzeko azpiegitura europearreko kidea da. IXA-CLARIN-K Humanitate Digitalen ikerkuntzarako hizkuntza teknologia garatzeko ikerketa-azpiegitura koordinatzen du. Interneten argitalpenak: http://ixa.si.ehu.es/node/1394/74.

- **BEZEROEN NAHIAK eta zer bilatzen duten jakiteko:**

BEZEROEN LEHENTASUNAK Hitzaldia - Alicja Jankowiak-ek **SuperMemo World enpresatik**

Hasteko, SuperMemo World-ek Polonian zein nazioartean duen esperientzia baliatuta, bezeroek estimatzen dituzten materialen ezaugarriak aurkeztu zizkigun. Jarraitzeko, bezeroek zer bilatzen edo zer nahi duten galderari erantzuten saiatu zen. Eta bukatzeko, norbanakoa bezeroa den merkatuan oso ekintzailea den enpresa baten ikuspuntutik, ikastaroek nolako edukiak zein nolako egitura izan behar duten azaltzen saiatu zen.

**SuperMemo World**

1980eko hamarkadan, SuperMemo World birpasen arteko denborak optimizatzeko ordenagailuak erabili zituen lehenengo enpresa izan zen eta, horrez gain, SuperMemo deituriko birpasatzeko metodoa sortu zuen. Gaur egun, SuperMemo World oraindik ere mundu mailako liderra da eta epe luzerako memoriaren gaineko ikerketa iturri bakarra, eta Polonian zein nazioarteko merkatuan duen 30 urteko esperientzia baliatzen du, autoikaskuntzarako ikastaroak eta e-learningerako bestelako produktuak diseinatzeko.

ALICJA JANKOWIAK

SuperMemo World-eko argitalpen saileko burua eta nazioarteko harremanetarako arduradunetako bat. Autoikaskuntzarako edukien garapena eta on-lineko zein sakelako irakaskuntzarako irtenbide teknologikoak dira bere ardurak. Zaletasunak atzerriko hizkuntzak, euskara zein txinera barne, eta irakaskuntza prozesuan teknologia berrien aplikazioa.

## 4. *WORLD CAFEaren* dinamikatik abiatuta

Hitzaldi horietatik abiatuta eta hitzalditxoak behin entzunda, mahaietan, guztira 10 mahai, 6naka jarri ginen, nahiz eta mahai batean 7 pertsona egon ziren. Hor behin eserita –baldintza bakarra izan zen erakunde berekoekin ez egotea-, gidariak eman zizkigun *world cafe* dinamikaren arauak, denok errespetuzko berdinen arteko solasalditxoetan aritzeko.

Behin arauak entzunda, azaldu zigun hiru erronda izango zirela, bigarren bueltan eta hirugarrenean nora joan behar izango genuen gure izenekin bete behar genuen txartelaren beste aldean zegoela eta, errotazio guztiak behin burututa, parte hartzaile bakoitzak, gutxienez, beste 15 pertsonarekin aritzeko aukera izango zuela.

Behin aritzeko arauak finkatuta, mahai bakoitzean anfitrioi bat aukeratu behar izan genuen. Anfitrioaren egitekoa mahaikideek esaten zutena jaso, eta hurrengoei laburtuta ematea zen; horrela, mahaia aldatzean, anfitrioiak mahaian aurreko txandan edo txandetan aipatutakoa laburtu eta eztabaida/elkarrizketa hortik aurrera bideratu behar zuten, gaian ahal beste sakontzeko.

Ezertan hasi orduko eta hitzalditxoak amaitu ostean, dinamikarekin hasteko joko laburtxo bat izan genuen: borobilez betetako orria jaso genuen eta marrazki bat burutu behar izan genuen. Mahai bakoitzean orri bakarra eta marrazki bakarra egiteko.

Jokoak talde-lana eta kooperazio-lana bultzatzeaz gain, nork marretatik atera eta irudimena askatasunez erabiltzen zuen ikusaraztea zen helburua; horrela, taldeetan lortutakoak hauek izan ziren:

Gero, jokoa bukatuta eta lehenengo errotazioaren 30 minutuen barruan, anfitrioia aukeratu zuen mahai bakoitzak eta, horrekin batera, kide bakoitzak bere burua aurkeztu eta aurkezpen fitxa bete behar izan zuen, nork bere izenarekin, gainera. Fitxaren atzealdean, gogoratu, bigarren eta hirugarren errotazioan nora joan zekarrela. Lehenengo errotazio honetan, gainera, gaia kokatzen lagun zitekeen galdera bat izan genuen. Galdera hau izan zen: **Zein izan daiteke ingurune digitala elikatzeko bidea?** Lehenengo errotazio honetan hori izan zen gaia, baita bigarrenaren lehenengo zatian ere, bigarren errotazio honen bigarren partean eta hirugarrenean, galdera berri bat jarri genuen mahai gainean: **zein tresna edo produktu lehenetsi?**

Esan bezala hiru errotazio izan ziren, eta errotazio horiek helburu bikoitza izan zuten; batetik, ezarritako galdera biei erantzutea; bestetik, euskararen inguruan lanean ari garen erakunde desberdinetako ikuspuntuak zein lanean ari diren pertsonak elkar ezagutzea.

Esan bezala, *world cafe* honek helburu orokor bat izan zuen: **ingurune digitala elikatzeko bideak edota lehentasunak markatzea**. Baina, euskararen inguruan lan egiten dugun erakunde desberdinetako ordezkariekin alderatuta. Ondorioetara iritzita horien kontrastatuak izan zitezen. Hala ere, *world cafe*aren egiturak berak beste aukera bat ere eman zigun: aurrea begirako lan markoak sortzeko elkarren berri izateko aukera paregabea; hau da, **elkar ezagutzeko eta elkarren berri izateko aukera**.

Helburuari heltzeko, behin hiru errotazioak burututa, mahai bakoitzean aipatutako hiru ondorio garrantzitsuenak denen artean adostu eta anfitrioiak, ondoriook fitxa banatan idatzita, guztien aurrean, horretarako presatutako panelean itsasteaz gain, denen aurrean azaldu behar izan zituzten ondorioak eta horiek aukeratzeko arrazoiak.

Guztira 10 mahai izan zirenez, 30 fitxa egon ziren. Fitxetako batzuk antzerakoak izan zirenak elkarrekin jarri ondoren, parte hartzaile bakoitzak hiru gomets izan zituen, bere ustez, hiru ondorio garrantzitsuei jartzeko eta, horrela, bakoitzak hiru boto eman zituen.

## 5. *WORLD CAFE*an ateratako ondorioak

Goiko irudi horretan agertu bezala, ondorioak borobiletan agertzen direnak dira eta honela jaso edo laburtu daitezke:

1. Batzuen ustez, ezertan hasi orduko, zer dugun jakin beharko genuke, hortik abiatzeko. Hala ere, batzuek ikuspegi osatuago baterako urratsa ere eman zuten:
   - Materialetan zer daukagun jakiteko premia
   - Plan digitala epe labur eta luzera

2. Talde batzuen iritziz, beste hizkuntzetan egiten diren produktu edota ekimenen antzekoak egitea litzateke bidea:
   - Youtubeko tutorialak, ikaskuntza informalerako jolasak, …
   - Youtuberrak eta juego de tronos modukoetako euskarazko tutorialak
   - Beste hizkuntzetan bezala, autoikaskuntzarako aplikazio integralak
   - Edukiak sortu dauden plataformetan: youtube, …

3. Asko izan ziren produktu edo horrelako bat egin beharrean, kultura aldaketaren premia azpimarratu zutenak; partekatzeko kultura sustatu beharra, hain zuzen ere. Azken batean, kontuan izan behar dugu geu eta ikasleak ere sortzaileak eta kontsumitzaileak garela, aldi berean.
   - Prosumirtualibretzaileak gara: sortu, kontsumitu era digitalean eta modu askean
   - Ikasleak sortzaile: ikasleek sortzen dutena baliatu elikatzeko
   - Kultura aldaketa: partekatzen ikasi behar
   - Partekatzeko kultura falta
   - Elkarlana
   - Koordinazioa
   - Erakunde eta enpresen arteko sarea sortu
   - Helburu berekin sortutako materialak partekatu behar dira.
   - Partekatzeko kultura sustatu
   - Erabiltzaileok elikatu behar dugu ingurune digitala

4. Ingurune digitalak, baina, baliatzeko zer dagoen jakin behar dugu eta, horretarako, batzuek argi zuten prestaketa behar dugula irakasleok. Eta horretaz gain, ingurune digitalak lan egiteko modua berria eskatzen duela.
   - Prestakuntza gaitasun digitalean
   - Irakasleen prestakuntza beharrezkoa da, baina testuinguratu behar da
   - Formazioa
   - Irakasleak trebatu, ez ereduak egokitu
   - Irakasleen prestakuntza eta motibazioa landu
   - Debaldeko baliabideetan formakuntza: zer dagoen zelan erabili
   - Ingurune digitalerako sortu ingurune digitaletik

5. Eta asko izan ziren edozein aldaketarekin gertatzen den bezala, honetan ere aldaketa lortzeko baliabideak behar direla eta baliabideak izateko dirua:
   - Finantziazioa

6. Bukatzeko, egon ziren ondorio batzuk beste batzuetan multzokatzeko zailagoak direnak eta hain orokorrak ez zirenak:
   - Ahotsa: tekleatu ez
   - Mundu birtuala ez dago prest
   - Metodologia: elkarreragina bultzatu
   - Erronka esanguratsuei heldu, atzean sostengua dutenak
   - Malgutasuna lortzeko metodoak

## 6. AURTEN BAIko Presidentearen agur hitzak

Ondorioak behin aurkeztuta, Fundazioko Presidentea den Mikel Etxebarriak parte-hartzaile guztiei berriz ere eskerrak emateaz gain, txosten hau egingo genuela iragarri zuen eta, horrekin batera, *world cafe*ak emandako ondorioak behar bezala aztertu eta aurrera begirako urratsak zehazten saiatuko ginela esan zuen. Era berean, Aurten Bai Fundazioak elkarlanaren aldeko apustua egiten jarraituko duela azpimarratu zuen.

## 7. ATERATAKO ONDORIOETAN BOZKATUENAK

Ondorioak behin aurkeztuta eta Mikel Etxebarriaren hitzak entzunda, parte-hartzaile guztiek ondorioen artean, nork bere iritziz garrantzitsuenak aukeratzeko hiru aukera izan zituen, bakoitzak hiru gomets berde izan zituen-eta. Ondorio bati botoa emateko, gainean itsatsi behar zion gometsa. Azkenean, bozketa honela gelditu zen:

Irudian ikusi bezala, hona hemen botoak:

1. Batzuen ustez, ezertan hasi orduko, zer dugun jakin beharko genuke, hortik abiatzeko. Hala ere, batzuek ikuspegi osatuago baterako urratsa ere eman zuten:
   - Materialetan zer daukagun jakiteko premia. 16 gomets
   - Plan digitala epe labur eta luzera. 17 gomets

   **Plan digitala: 33 gomets**

2. Talde batzuen iritziz, beste hizkuntzetan egiten diren produktu edota ekimenen antzekoak egitea litzateke bidea:
   - Youtubeko tutorialak, ikaskuntza informalerako jolasak, … 0 gomets
   - Youtuberrak eta juego de tronos modukoetako euskarazko tutorialak .1 gomets
   - Beste hizkuntzetan bezala, autoikaskuntzarako aplikazio integralak. 4 gomets
   - Edukiak sortu dauden plataformetan: youtube, … 3 gomets

   **Produktuak Youtuben, adibidez: 8 gomets**

3. Asko izan ziren produktu edo horrelako bat egin beharrean, kultura aldaketaren premia azpimarratu zutenak; partekatzeko kultura sustatu beharra, hain zuzen ere. Azken batean, kontuan izan behar dugu geu eta ikasleak ere sortzaileak eta kontsumitzaileak garela, aldi berean.
   - Prosumirtualibretzaileak gara: sortu, kontsumitu era digitalean eta modu askean. 3 gomets
   - Ikasleak sortzaile: ikasleek sortzen dutena baliatu elikatzeko. 5 gomets
   - Kultura aldaketa: partekatzen ikasi behar. 12 gomets
   - Partekatzeko kultura falta. 0 gomets
   - Elkarlana. 2 gomets
   - Koordinazioa. 11 gomets
   - Erakunde eta enpresen arteko sarea sortu. 1 gomets
   - Helburu berekin sortutako materialak partekatu behar dira. 0 gomets
   - Partekatzeko kultura sustatu. 3 gomets
   - Erabiltzaileok elikatu behar dugu ingurune digitala. 1 gomets

   **Kultura aldaketa eta partekatu beharra: 38 gomets**

4. Ingurune digitalak, baina, baliatzeko zer dagoen jakin behar dugu eta, horretarako, batzuek argi zuten prestaketa behar dugula irakasleok. Eta horretaz gain, ingurune digitalak lan egiteko modua berria eskatzen duela.
   - Prestakuntza gaitasun digitalean. 5 gomets
   - Irakasleen prestakuntza beharrezkoa da, baina testuinguratu behar da. 2 gomets
   - Formazioa. 11 gomets
   - Irakasleak trebatu, ez ereduak egokitu. 0 gomets
   - Irakasleen prestakuntza eta motibazioa landu. 9 gomets

- Debaldeko baliabideetan formakuntza: zer dagoen zelan erabili. 0 gomets
- Ingurune digitalerako sortu ingurune digitaletik. 0 gomets

**Irakasleen prestakuntza: 27 gomets**

5. Eta asko izan ziren edozein aldaketarekin gertatzen den bezala, honetan ere aldaketa lortzeko baliabideak behar direla eta baliabideak izateko dirua:
   - Finantziazioa. 10 gomets

   **Finantziazioa: 10 gomets**

6. Bukatzeko, egon ziren ondorio batzuk beste batzuetan multzokatzeko zailagoak direnak eta hain orokorrak ez zirenak:
   - Ahotsa: tekleatu ez. 5 gomets
   - Mundu birtuala ez dago prest. 0 gomets
   - Metodologia: elkarreragina bultzatu. 5 gomets
   - Erronka esanguratsuei heldu, atzean sostengua dutenak. 1 gomets
   - Malgutasuna lortzeko metodoak. 0 gomets

   **Bestelakoak: 11 gomets**

## 8. AURRERA BEGIRAKO URRATSAK

Aurrera begira, Fundazioak oso argi du zein den bere neurria eta bere eragin esparrua, eta horregatik, egingarriagoa den horri heldu eta aurrera begirako urratsak, gaur-gaurkoz, formazio inguru horretakoak izango dira, zehatzago aurreikusten ditugun ekimenak beheko hauek dira:

1. Zornotzako Barnetegiko irakasleekin *world cafe*a burutu, otsailaren 21ean lortutako emaitzak eta etxean lortuko direnekin kontrastatzeko.

2. Formakuntzari heltzeko, batetik, Maite Goñirekin formazio saio bat adostu irakasleen ezagutza areagotzeko eta joera metodologikoak eta tresnak hobeto ezagutzeko. Bestetik, Aurten Bai Fundazioko informatika arduradunarekin saio batzuk adostu, irakasleen ezagutza teknologikoa handitzeko eta ingurune digitala elikatzeko urratsak ematen has daitezen. Formazio saiook ahal izanez gero, sektoreko kideen artean zabalduko ditugu, bertan parte hartzeko aukera izan dezaten.